

BATZAR AKTA 7/2020

Gaia:	Kontratazio lan-taldea
Helburua:	Bermeoko Udaleko kontratazioaren espedienteak eraginkorrakoak izatea
Data:	2020/07/16
Hasiera – bukaera ordua:	12:00-12:45
Parte hartzaileak:	Naiara Anasagasti (Antolakuntzako AOT), Jurdana Uriarte (Idazkaria), Karmele Muñoa (Idazkaritzako AOT) eta Nerea López (Idazkaritzako AOT eta lan-taldeko koordinatzailea).

Tratatutako gaiak/Ondorioak:

Gaiak:	Ondorioak:
1. Aurreko aktaren onarpena	1. Akta onetsi da
2. Aurreko batzarreko egitekoen jarraipena	2. - Kutxa aurrerapenen instrukzioa onartu eta zabalkundea egin: Diruzainarekin hitz egiten da eta gonbidatzen zaio batzarrean parte hartzera. Bere iritzia azaltzen du prestatutako instrukzioaren inguruan. Erabakitzen da Edurne dagoenean berarekin adostuko dela. - Kalte-ordainen eskaria egiteko ereduaren zabalkundea egin: Eginda dago. - Kontratazio zentraleko ereduak moldatu (hasiera eta justifikazio txostenak): Prestatu gabe daude. - Kontratugilearen profileko argitalpenak kontrolatzeko dinamika ezarri: Eginda dago. - Kontratazioa zentralizatzeko proposamena aztertu eta iradokizunak egin: Pendiente dago.
3. Kontratazio-prozeduraren zirriborroa aurkeztea	3. Adosten da hurrengo batzarrerako prozedura proposamen bat aurkeztuko dela, sail bakoitzari dagozkion egitekoak ezarriz.
4. Egin beharreko plegu eta eredu aldaketak	4. Zerbitzu arlotik helarazi da akats bat dagoela baldintza-agiri administratiboetan, kontratuaren esleipenen akordioaren aurka ipini daitezkeen errekurtsioen epeekin lotuta. Gainbegiratuko da akatsa zuzentzeko. Bestalde, Idazkaritza arlotik zenbait proposamen aurkezten dira egin beharreko txosten eta justifikazio memoriari dagokionez. Hurrengo batzarrean aurkeztuko da.



- | | |
|--|--|
| 5. Prozedurak efizienteagoak izateko proposamenak aztertzea | 5. Ez da proposamenik aurkeztu |
| 6. Swaleko eta kontratugilearen profileko ereduaren jarraipena | 6. Swalen pixkanaka-pixkanaka sartzan ari dira pleguak. Kontratugilearen profilari dagokionez, dena publikatzen da eta jarraipena egiten zaio. |
| 7. Sail ezberdinetako arazoak bideratzeko proposamenak | 7. Ez da proposamenik aurkeztu. |

Hurrengo batzarra: 2020-08-06 12:00etan.

Bileraren helburuaren betetze maila:

% 100

Deskribapena	Egitekoak:		
	Epea	Erantzulea	Eginda
Kutxa aurrerapenen instrukzioa akordatu eta zehaztu	2020-08-06	Edurne/Izaskun	
Kontratazio prozedura zehaztu eta zabaldu	2020-08-06	Nerea	
Kontratazio zentralizaturako ereduak moldatu (hasiera txostenak eta justifikazio memoriak)	2020-08-06	Nerea	
Kontratazioa zentralizatzeko proposamenak aztertu eta iradokizunak egin	2020-08-06	Denok	
Data: 2020/07/30	Akta hartzailea: Nerea López Angulo	Or. 2/2	

